



2025eko Jolastokietako jaietako holi txupinazoa. **ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**

Askotariko jarduerekin datoz Jolastokietako jaiak, 40. urteurrenean

Heldu, gazte eta, bereziki, haurrentzako jarduera ugari prestatu dituzte aurten ere Altzako Jolastokieta auzunean, baita egitarauan beritasun batzuk sartu ere. Auzotarrak «ilusioz» eta «gogoz» daudela ziurtatu du jai batzordeko kide Miguel Angel Diezek.

Beñat Parra Rodriguez

Egitarauan garrantzi berezirik eman ez badiote ere, urteurren berezia dute ospatzeko Jolastokietan, Altzako auzune horretako jaiak 40 urte beteko baitituzte aurten. Hilaren 7tik 13ra ospatuko dituzte Jolastokietako jaiak, eta auzotarrek ez dute aspertzeko astirik edukiko.

40 urte horiek jaien antolaketan murgilduta daramatzan Miguel Angel Diez batzordeko kide eta jaien

«*alma materrak*» aurtengo egitarauaren nondik norakoak xehatu ditu: «Aurten, beritasun nagusi gisa, Iruñeko Goxo txaranga feminista-ekin egingo dugu ostiraleko ohiko pregoi kontzertua», nabarmendu du.

Ez da hori, ordea, beritasun bakarra: ostiraleko txupinazoaren osteko Herrerako musika eskolako musikari-ekin kontzertua, larunbat eguerdiko euskal dantzen berreskuratzea, la-

runbat arratsaldean Pasai txaranga-
ren erritmora egingo duten kalejira
eta igande goizean hurrek askota-
riko orrazkerak ikus eta ikas ditza-
ten prestatu duten *Orrazkera zoroa*
egitasmoa ere aurtengo beritasunen
artean daude, hain zuzen ere.

**Larunbata haurrentzako
gordetzen dute urtero,
izan ere, haur asko daude
Jolastokietan, eta txikitatik
murgildu nahi dituzte jai giroan**

Larunbata, haurrentzat

Diezek nabarmendu du jaietako larunbata haurrentzako gordetzen dutela urtero, «beraientzat prestatzen ditugu jarduera guztiak edo gehienak». Izan ere, haur asko daude Jolastokietan, eta horiek txikitatik murgildu nahi dituzte jai giroan: «Etxebizitza berriak eraiki direnez azken urteotan inguruan, haur eta gaztetxo asko daude auzoan, eta horietako asko etortzen dira jaietara».

Horrez gain, larunbatean gazte eta helduentzako jarduerak ere badauden moduan, beste egunetan ere badaude haurrentzako egitasmoak. Ildo horretatik, igandeko Jolas Chef jarduera nabarmendu du Diezek: «Iaz egin genuen lehenengo aldiz, eta arrakasta handia eduki zuenez, aurten ere egingo dugu. Hurrek etxetik ekarriko dute postre bat, eta guk apaintzeko askotariko produktuak jarriko dizkiegu, bakoitzak nahieran aurkeztu dezan berea».

Gazte eta helduentzako jardueren artean, gaueko kontzertu eta DJ emanaldiak eta igandeko paella jana nabarmendu ditu Diezek: «Jende asko erakartzen dute urtero». Aurten ere hala izatea espero dute jai batzordeko kideek, izan ere, auzoa «gogo eta ilusio handiz» ikusten du Diezek jaiari begira: «Jendeak asteak daramatza galdetzen noiz diren aurtengo jaiak, egun horiek gorde, auzoan gelditu eta jaiatzeko gozatzeko». ●

IRAILAK 7 ETA 8

18:00
XVII. Pala eta Eskuzko Txapelketa, pilotalekuan.
Aurretik, jaien azken prestatze lanak.

ASTEAZKENA9

18:00
Futbol txapelketa (3x3), pilotalekuan.

19:30
Kuadrillen arteko futbito txapelketa.

OSTEGUNA 10

17:30
3 On 3 Saskibaloia.

18:30
Txirri, Mirri eta Txiribitonon *Pailazo* ikuskizuna.

18:35
Argazki lehiaketa.

OSTIRALA 11

17:45
Holi txupinazoa. Traka, suziariak eta Herrerako
Musika Eskolako musikariak, plazan.

19:15
Erraldoi eta buruhandien irteera.

19:30
Kuadrillen arteko txapelketaren finalerdiak.

20:00
Pregoi kontzertua: Iruñeko Goxo txaranga.

20:30
Sardina jate herrikoia.

22:30
Arka Live Kower pop-rock taldea.

LARUNBATA 12

09:30
Diana.

10:15
Malabarismoa.

10:30
Ping-pong txapelketa.

10:35
Xingola lasterketa bizikletan.

11:00
Oinezkoen lasterketa.

11:00-14:00 eta 15:00-19:00
Haur parkea, Bertsolari Txirrita plazan.

12:00
Euskal dantza, Herri Ametsa Ikastolarekin.

13:00
Apar festa.

13:30
Poteoa trikitilariekin.

16:05
Tute txapelketaren finalak, Joserra
tabernan.

17:00
Familia danborrada, Pasai txarangak
girotuta.

18:00
Pala finalak.

18:30
Txokolate eta gaileta janaldi aparta.

19:00
Erraldoi eta buruhandien irteera.

19:15
Pasai txaranga.

21:30
Herri afaria.

22:30
Yerai Nieto DJ-a.

23:55
Zezensuzkoa.

02:30
Baratzuri zopa, bizirik dirautenentzat.

IGANDEA 13

09:30
Diana.

10:00
XXXIX. Jolastokieta lasterketa herrikoia.

10:30
Toka eta bote txapelketa.

11:15
Haurren mozzorro lehiaketa.

11:30
Orrazkera zoroa, 14 urte azpikoentzat.

11:45
Luntxa, erretiratuentzat.

12:00
Arrautzopil lehiaketa eta herri kirolak,
Jolastokietako pilotalekuan.

12:15
Marrazkia aurkeztea, kultur etxean.

12:30
Jolas CheFa haurrentzat.

14:00
Herri paella Jolastokieta plazan.

16:00
Mus txapelketaren finalak, Caballero
tabernan.

17:00
Happy Estudio Dance dantza akademia.

18:00
Sagardo eguna.

18:30
Groseko erraldioen eta buruhandien irteera.

19:30
Diskoteka ibiltaria.

20:10
Zezensuzkoa.

20:30
Azken traka eta jai amaiera.